

## **Kultur etxean ikasteko gela bat zabaldu dute**

**Azterketa aldietarako liburutegiak baino ordutegi zabalagoa eskaintzen du**

### **ERREDAKZIOA**

Bermeoko Kultur Etxe berriak, Udal liburutegiagaz adostuta, Bermeoko ikasleentzat ikasgela bat zabaldu du. Horrela, azterketa garaia izanik, ikasleek bertan ikasi ahalko dute.

Gela horrek kultur etxeak duen ordutegi bera izango du; hau da, astelehenetik barikura 09:30etik 14:00etara eta 16:30etik 21:45era; eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

### **Zerbitzu hobe**

Kultur etxeko ordutegia zabalagoa izanik, zerbitzu hobe eman dezakeela uste dute eta ikasleek liburutegiari egiten zioten eskaerari erantzun nahi diote ordutegi zabalagoa eskainiz.

Orain ekainean zehar erabili ahal izango da eta berriz ere zabalduko dute abuztuan eta irailean. Azterketa garaietan zabaltzea da asmoa.